

MATXURA LASARTE-ORIAKO GOI-SANEAMENDUKO SAREAN

Gaur ostiralean, azaroaren 20an, eguerdiko 12:50 aldera matxura bat gertatu da Añarbeko Uren titulartasuneko goi-saneamenduko sarean, Kale Nagusiko 26. zenbakiaren parean, San Pedro parrokiako oinezkoentzako alboan. Inguru horretako lur-azpian orain urte asko instalatu zituzten hodiaren balbula batek huts egiteagatik gertatu da matxura. Hodi horiek Usurbildik Hernanira bitarteko kolektore orokor berriaren parte dira orain, eta kolektore horrek, aurki, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo udalerrietako hondakin-urak Donostiara eramango ditu, Loiolako araztegiraino.

Balbularen hutsegiteak ura ateratzea eragin du —zorionez, ibaitik zetorren ura—, Zubietako ponpatze-estazio garrantzitsua martxan jartzearen probak egiten ari zirela. Aurki zerbitzuan sartuko den estazio horri esker, azkenean, ur zikinak Oria ibaira isurtzeak desagertu egingo dira eta, ondorioz, hobetu egingo da ibaiaren behe-ibilguko ingurumenaren egoera.

Añarbeko Uren zerbitzu teknikoen berehala ekin diote matxura konpontzeko lanak egiteari, eta ur-irteera gutxitzea lortu dute lehenik eta desagerraraztea gero (13:50ean). Ondoren, urez betetako arketa bat hustu dute, eta instalazioak beren egoera normalean berrezarri dituzte.

Zorionez, uraren irteera-puntutik hurbileko gainaldea putzuz betetzea beste kalterik edo eragozpenik ez da gertatu, ibilgailuen zirkulazioa piti bat afektatua egon delarik gertaeraren hasierako uneetan.



Donostian, 2015eko azaroaren 20ean